



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainak 5

Vitoria-Gasteiz, 5 de junio de 2018

Lehendakaritza

EUSKAL GIZATALDEETAKO PERTSONEN PREMIA LARRIKO EGOEREI ERANTZUTEKO LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak Euskal Etxeetarako 202.000 euroko laguntza-saila onartu du gaur. Euskal gizataldeetako pertsonen premia larriko egoerei eta laguntza-beharrei erantzuteko bideratuko da diru hori.

Gaur onartutako laguntzei esker arreta jasoko dute gizarte-bazterketako egoera larrian dauden pertsonak, dela herrialde batzuetan izandako moneta-ozilazioen eta ekonomia-gabezien egoeragatik, dela adinagatik, dela gabezia-egoerengatik, dela osasun-krisialdiengatik edota bat-batean sortutako istripuen ondoriozko ezgaitasunengatik.

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Euskal gizataldeko kidea direla egiaztatzea.
- b) Atzerrian bizitzea.
- c) Laguntzako beharrei edo premia larriko egoerei aurre egitea ahalbidetzen duten ondasunik edo diru-sarrerarik ez edukitzea.
- d) Etxe partikularretan bizitzea, eta araudi edo estatutuengatik laguntza eman behar dieten talde, komunitate edo erakundeetako kide ez izatea.

Laguntzak emateko orduan familiako egoera ekonomikoa hartu da kontuan herrialdeko batez besteko errentarekin lotuta, bai eta osasun-gertakizunaren edo premia handiko egoeraren larritasuna eta eskaera beharretara egokitzea ere.

Eskatutakoaren ehuneko 100era iritsi ahal izango dira laguntzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko errentaren zenbatekoa izango da muga; nolana ere, osasun-gertakizunei aurre egiteko laguntzek ez dute muga hori izango.

Venezuela da hartzaile nagusia

2003an abiarazi zenetik, Eusko Jaurlaritzak urtero deitu du laguntza-programa hau. 2017ko deialdian 194.642 euro esleitu dira, 6 herrialdeetako 16 Euskal Etxe ezberdinetako 111 familia-unitaten beharrei atenditzeko. Venezuelara bideratu dira ahalegin handienak (%37), eta bere atzetik daude Argentina (%22), Kuba (%19), Txile (%18), Uruguai (%3) eta Erresuma Batua (%1).

Deialdi honetan hartzailearen profila emakumezkoena da gehienez, zeren eta 111 familia-unitate horietako 76k emakume bat duten familiaburu. Medikuntzako kasuak ere ugari dago, 45 osotara.

Lehendakaritza

**EGIN DA BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO
PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA; GUZTIRA 1,1 MILIOI EURO
BIDERATUKO DIRA**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du gaurko bileran bizikidetzarako eta giza eskubideetarako proiektuetara bideratutako laguntzen deialdia; 1.150.000 euro bideratuko dira, guztira. Laguntza horien helburua gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideekiko errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura eta biktimak gizartera hurbiltzea da eta, horretarako, partekatutako espazioak sortzea.

Aurten, laguntzak pasa den apirilean onetsitako [araudi berriaren](#) arabera deitu dira; araudiak Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan ematen dituen laguntza guztiak arautuko dituen esparru bakarra ezartzen du.

Zehazki, Euskadiko **udalerriek** eta gainerako toki-erakundeek egingo dituzten proiektuak finantzatzeko laguntzen deialdia egin da (250.000 euro) eta irabazi-asmorik gabeko **erakunde pribatuek** martxan jartzen dituztenak finantzatzekoa; horien barruan daude bizikidetzaren eta giza eskubideak helburu dituzten terrorismoaren biktimen elkarteak eta pertsona fisikoak (900.000 euro).

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

2030ERA KO EUSKADIKO JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA ESTRATEGIA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Gobernu Kontseiluari 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren onespeneren berri eman dio; horren bidez, euskal gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortu ahal izateko hezkuntza eraldatzailea garatzeko euskarriak finkatu nahi dira. Praktikan eta eragile guztien arteko lankidetzan oinarritzen den jarduketa-gida izan nahi du, euskal herritarrek jasangarritasunaren kultura eraikitzen inplikarazteko.

Estrategia bost urteko hiru ekintza-planen bidez garatuko da, 4.161.000 euroko aurrekontuarekin, eta indarraldian zehar banatuko dira

4 helburu proposatzen ditu lehentasunezko jardun-ardatz gisa: ekintzarako hezkuntza; hezitzaile, prestatzaile eta aldaketarako beste eragile batzuen gaitasunaren loratzea; gazteen gaikuntza eta ahalduntzea; eta jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa hiri eta herrien sustapena. Helburu horiek betetzeko, 9 jardun-ildo jarriko dira martxan, eta horiek 27 ekintza izango dituzte.

Jardun-ildoak

- Hezkuntza-eremuetan jasangarritasunerako hezkuntza-arloko eragile dinamizatzaile eta berritzaileen eginkizuna sustatzea.
- Ekintzarako ikaskuntza helburu duten metodologia berritzaile eta integratzaileak sustatzea.
- Jasangarritasunerako hezkuntzan lan egiten duten eragileen sarean lankidetzan oinarritzen den lanari bide ematea.
- Hezitzaileei ikaskuntzaren eta aldaketaren bideratzaile izateko gaikuntza ematea.
- Hezkuntzaz bestelako sektoreetako aldaketa-eragileei gaikuntza ematea.
- Unibertsitateak eta lanbide-heziketako zentroek jasangarritasunaren arloan gazteak ahalduntzeko plataforma gisa duten eginkizunaren balioa nabarmentzea.
- Ekintzaren bidez jasangarritasunaren arloko gaikuntza eta ikaskuntza sustatzea.
- Tokiko21 Agenda eta Eskolako 21 Agenda programen arteko koordinazioa sendotu eta haren balioa nabarmentzea.
- Tokiko eragileek sustatu eta garatutako jasangarritasunerako hezkuntza-jarduerak sustatu eta dinamizatzea.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

BERRITU EGIN DA EKOETXEA KUDEATZEKO HITZARMENA AZPEITIKO UDALAREKIN

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Azpeitiko Udalarekin hitzarmena sinatzea, “Ekoetxea Azpeitia” kudeatzeko, Gipuzkoako udalerriko Egibar baserrian.

Horrela, 2020aren amaiera arte pasa den mendeko 80ko hamarkadan, Ingurumeneko Sailburuordetzak baserri historiko hura birgaitu zuenean eta ingurumen-hezkuntza zentro bilakatzea erabaki zenean, bi erakundeen artean hasitako lankidetzak luzearekin jarraitzen da. Zentroa 1987an inauguratu zen, “Umeen Museo” izenez.

Ekipamendu hori, Urdaibaikoarekin batera, ingurumen-zentroen sareko (Ekoetxeak) zaharrena da Euskadin, nahiz eta martxan denetik hogeita hamar urteetan ikuspegi tematiko desberdinak izan dituen, betiere ingurumenaren inguruko kontzientziazioaren bueltan.

Hitzarmen berria Gobernu Programan eta Ingurumeneko IV. Programan jaso diren konpromisoekin bat dator; horien bidez, natura-ingurunearen kalitatea hobetu eta ingurumen-hezkuntzako politikak hobetu nahi dira eta, horrela, “herritarren erantzunkidetasun eraginkorrean aurrera egin, ingurumena babesteko eta kontserbatzeko, Ekoetxeen eginkizun aktiboaren bitartez”. Iñaki Arriola sailburuak eta Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak sinatuko duten hitzarmenaren arabera, Ingurumen Sailak Udalari 135.000 euroko ekarpena egingo dio, indarraldiko hiru urtean, Ekoetxea martxan egoteko, eta udalerriak bere gain hartuko ditu zentroa mantentzeko eta bertako langileen gastuak.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

NATURA ONDAREA HOBETO EZAGUTU ETA KONTSERBATZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindua, natura-ondarea hobeto ezagutu eta kontserbatzeko azterlan eta ikerketa aplikatuko lanak egiten dituzten erakunde publikoek jaso ahalko dituzten diru-laguntzak ematea arautzen duena.

Aginduak diru-laguntza jaso dezaketen honako tematika hauek aurreikusten ditu:

a) 2000 Natura Sarea.

b) Natura 2000 Saretik kanpoko Europar Batasuneko edo eskualdeko interesa duten habitat naturalei edo erdi naturalei eta natura-espazio babestuei buruzko azterlan eta lanak, horien kontserbazio-egoera hobetzen lagunduko dutenak.

c) Mehatxupean dauden baso flora eta faunako espezieak, bai autonomia-mailan, bai erkidego-mailan, erreferentzia gisa mehatxupean dauden espezieen katalogoak hartuta.

d) Natura-ondarearen beste elementu batzuk, besteak beste: espezie exotiko inbaditzaileak kudeatzeko proposamenak; toki-mailan interes geologikoa duten ekosistemak, habitatak, espezieak edo lekuak leheneratzeko jarraibide eta irizpideak; klima-aldaketak biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen gainean Euskadin dituen eraginei buruzko eta/edo biodibertsitateko elementuak klima-aldaketara egokitzeko estrategiei buruzko azterlanak eta abar.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 160.000 eurokoa da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez, % 80 izango da, eta ezingo da proiektuko 20.000 €-tik gorakoa izan. Erakunde bakoitzak gehienez bi proiektu aurkeztu ahalko ditu, eta proiektu bakoitzak helburu eta xede desberdinak izan behar ditu. Bi proiektuek jaso ahalko dute diru-laguntza.

Erakundeak diru-laguntzarako eskabidea bi proiektu baino gehiagotarako aurkeztu badu eta biak diruz lagundu badaitezke, organo ebaluatzaileak dagokien diru-laguntza emango die puntuazio gehien jaso duten bi proiektuei.

Eskabideak aurkezteko epea 45 egunekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabideak baliabide elektronikoan bidez aurkeztuko dira, euskadi.eus-en egoitza elektronikoan:

[https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/generacion
conocimiento/y22-izapide/es](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/generacion_conocimiento/y22-izapide/es)

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

750.000 EURO, ESKOLAKO 21 AGENDA GARATZEKO LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren eta Hezkuntza sailburuaren agindua onetsi du; horren bidez, autonomia-erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeei Eskolako 21 Agenda programa garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin da.

Eskolako 21 Agenda hezkuntza-estrategia garrantzitsua da jasangarritasunerako; horren bidez, ikasleek, hezkuntza-jardunaren bidez, beren inguruneko ingurumen-problematika ezagutu eta ulertzen dute eta gizarte jasangarriagoaren alde erantzukizunez jarduteko eta parte hartzeko balio die.

Datorren 2018-2019 ikasturterako ezarritako laguntzetara unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe publiko eta pribatu guztiek jo dezakete. Horretarako, zentroko proiektu bakarra aurkeztu beharko dute, jasangarritasunerako hezkuntza-arloan egin beharreko jarduera guztiak jasoko dituen, aurrekontuarekin batera.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 750.000 eurokoa da. Aginduak zehazten du programa garatzeko diru-laguntza eskatzen duten eta eskakizunak betetzen dituzten itunpeko ikastetxe publiko eta pribatu guztiek diru-laguntza jasoko dutela. Laguntzen zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren arabera izango da, eta gehienez 5.000 euroko muga izango du, Eskola Jasangarriaren ziurtagiria duten zentroen kasuan, eta 3.000 eurokoa, gainerakoetan.

Eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, eta horretarako epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

1,5 MILIOI ENPRESEI BIDERATUTA, INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOETARAKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren, Iñaki Arriolaren, agindua; horren bidez, ekitaldi honetarako diru-laguntzak deitu dira, enpresei zuzenduta, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko. Aginduak honako diru-laguntza ildo hauek aurreikusten ditu:

- a) Ingurumenaren babesaren arloan Europar Batasunaren arauak gainditu edo arauditik eza egonez gero babesa areagotu ahal izateko inbertsioetarako laguntzak.
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara aurretiaz egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterlanetarako laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsioetarako laguntzak.
- e) Antzina kutsatutako lursailak saneatzeko laguntzak.
- f) ETEentzako laguntzak, ingurumen-arloan aholkularitza-zerbitzuak emateko.

Deialdirako aurrekontu-zuzkidura 1,5 eurokoa da; 785.000 euro prozedura arruntaren bidez esleitutako proiektuetarako esleitzen dira, eta gainerako 715.000 euroak, prozedura sinplifikatuaren bidez esleitutako proiektuetarako. Laguntza horiek Eskualde Garapeneko Europako Funtsak finantzatzen ditu diruz lagundutako zenbatekoaren % 50ean, laguntzaren onuraduna enpresa txiki edo ertaina denean.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabideak baliabide elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira hemen: https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2018/agrprot2018/y22-izapide/es.

Esleipen-prozedura bakoitzean hartzen den ebazpena gehienez sei hileko epean eman eta jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

2,1 MILIOI EURO GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO TOKI ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren, Iñaki Arriolaren, agindua; horren bidez, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomoei, toki-garapeneko agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dira. Aginduak honako diru-laguntza ildo hauek aurreikusten ditu:

- a) Lurzoru kutsatuak: lurzoruaren kalitatea ikertzeko, prebenitzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa: EAEn isuriak arintzeko (berotegi-efektuko gasen isuri garbiak murriztea) eta egokitzeko (klima-aldaketaren eraginak murrizteko plangintza) ekintzak.
- c) Natura-ondarea eta biodibertsitatea: EAEko biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea, berrezartzea edo hobetzea sustatzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra: hondakinak sortzea prebenitzeko ekintzak, nagusiki elikagai-hondakinak eta biohondakina.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza: Tokiko Agenda 21en eta Eskola Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.

Deialdirako aurrekontu-zuzkidura 2,16 milioi eurokoa da, eta honela banatzen da:

- 600.000 euro lurzoru kutsatuen ildorako
- 600.000 euro klima-aldaketaren ildorako
- 450.000 euro natura-ondarearen eta biodibertsitatearen ildorako
- 250.000 euro ekonomia zirkularren ildorako
- 260.000 euro jasangarritasunerako hezkuntzaren ildorako

Eskabideak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik irailaren 14ra arte egongo da irekita. Eskabideak baliabide elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira hemen: https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2018/herrijasangarriak/y22-izapide/es
https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2018/herrijasangarriak/y22-izapide/eu

Ogasun eta Ekonomia

HITZARMENA, ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN ETA EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE EREMUAN OSPITALEKO MORBILITATEARI BURUZKO INKESTA EGITEKO

Gobernu Kontseiluak onetsi du Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen artean hitzarmena sinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan ospitaleko morbiditateari buruzko inkesta egiteko.

Interes komuna dago Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, alta-kopuruaren bidez diagnostiko nagusiaren arabera ospitaleetan artatutako morbiditate orokorra ezagutzeko, ospitaleko altari lotutako diagnostiko nagusiaren arabera ospitaleko batez besteko egonaldia zehazteko, ezaugarri soziodemografikoak eta ospitaleko pazienteen egoitza ezagutzeko eta azterlan epidemiologikoetarako oinarri izateko.

Eragiketaren eremua akutuen ospitaleetara, egonaldi erdi eta luzeko ospitaleetara eta ospitale psikiatrikoetara zabaltzen da, ospitaleratzea dakarten altetara mugatzen da.

Hitzarmen honen helburua EINeren eta Eustaten arteko lankidetzaren formalizatzea da, ospitaleko morbiditateari buruzko inkesta egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan.

Ikerketa bakarra egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan; horrela, dagozkien estatistika-planetan aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezko informazioa jaso eta, ondorioz, estatistika-eragiketan bikoiztasunik ez egoteko; horrek, gainera, baliabide publikoetan aurrezteko ere ekarriko du.

Hezkuntza

1,75 MILIOI EURO PERTSONALA IRALE PROGRAMAN DUTEN IKASTETXE PRIBATUETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Agindu bat onartu du, 2018. urtean klase-orduetan eman beharreko IRALE (Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzea) programako euskara ikastaroetan parte hartzeko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatuei edo ekimen sozialeko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzen deialdia argitara ematen duena.

1.753.000 euroko zenbateko globala duten diru-laguntza horiek, euskara ikasteko liberatutako irakasleak ordezkatzearen ondoriozko gastuak diruz laguntzea dute helburu. Irakasle horiek aukera izango dute urteko, hiruhilekoko edo 5 asteko ikastaroak egiteko.

Hezkuntza Sailak laurogeikoen hamarkadan ekin zion irakasleak euskaldundu edo alfabetatzeko lanari. Irakasleak hizkuntzetan gaitzeko IRALE programak, beraz, hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea egin du dagoeneko. Guztira 80 irakasletik gora ari da bertan, bost irakastegitan (Bilbon bi eta Donostian, Gasteizen eta Eibarren bana), eta kanpo-euskaltegien laguntzaz osatzen du bere eskaintza.

Urteek aurrera egin ahala hezkuntza-sisteman irakasleen hizkuntza-gaitasunean izan den aldaketa tipologikoak behar berriak sortu ditu, hasierakoekin alderatuta erabat desberdinak. Horregatik, IRALEK egun eusten dio oraindik ere irakasleak euskalduntzeko helburuari, baina haien hizkuntza gaitasuna sendotzeak hartzen du programaren zatirik handiena, izan sare publikoko zein itunpeko ikastetxeetako irakasleak. Horrekin batera, irakasleak hizkuntzaren didaktikan eta metodologietan gaitzea eta prestakuntza sozio-kulturala emateaz ere arduratzen da. Era berean, euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-kalitatea bermatzeko lanetan ere parte hartzen du, materialak edukiz, moldaera teknikoaz eta hizkuntza-trataeraz egokiak izan daitezen bermatzeko.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2,6 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ADIKZIOEN PREBENTZIOAN LAN EGITEN DUTEN TOKIKO ERAKUNDEENTZAT ETA KOLEKTIBOENTZAT

- **Osasun Sailak lehentasuna eman dio adikzioei modu integralean aurre egiteari eta esparru komunitariotik jokabide osasungarriak sustatzeari, herritarrekin egiten diren zerbitzuen hurbiltasunagatik**

Jon Darpón Osasuneko sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak gaur onartu duen diru-laguntzen deialdiaren aginduaren bidez, diru-laguntzak emango dira: adikzioen prebentzioko udal-taldeak sortzeko eta mantentzeko; prebentzio komunitarioko tokiko programa espezifikokoak garatzeko; eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek jokabide osasungarrien sustapeneko eta prebentzioko proiektuak egiteko. Aginduak, 2018ko ekitaldirako, 2.618.400 euroko laguntza hartzen du aintzat hiru kapitulu horietarako.

Osasun Sailak ezartzen du, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legearen arabera, osasunaren sustapenak eta prebentzioak lehentasuna dutela adikzioei askotariko diziplinetatik eta modu integralean aurre egitean. Prebentzioaren arloan, berriz, esparru komunitarioak du lehentasuna, pertsoneri eta parte diren komunitateei egiten dieten zerbitzuen hurbiltasunagatik —batez ere udalerrietan eta mankomunitateetan garatzen baitira—.

lido horretan, agindu honen bidez, jarraipena emango zaio prebentzio komunitarioko talde teknikoak sustatzeari; era berean, adikzioen arloan udalek tokiko planen edo, hala badagokio, foruko planen bidez garatzen dituzten programekin eta jardunekin ere jarraituko da. Horrez gain, arlo horretan irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek egiten dituzten jardunen garrantzia ere nabarmentzen du. Eta hori guztia, 2017-2021 aldiko Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko VII. Planaren edukiekin bat eginik.

Hartara, honela banakatzen dira laguntzak:

- 1.174.135 euro zuzenduko dira tokiko erakundeek adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzera eta mantentzera.
- Tokiko planei atxikitzen zaizkien adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta, jardun-esparru horretan, jokabide osasungarrien sustapenerako programak garatzeko 561.765 euro gorde dira.
- 882.500 euro zuzenduko dira adikzioen arloko prebentzio-proiektuak, arriskuak eta kalteak murrizteko proiektuak eta jokabide

osasungarriak sustatzeko proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzat.

Hilabeteko epea izango da eskaerak aurkezteko, agindu hori EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 979.200 EURO ONARTU DITU EUSKARA SUSTATZEA HELBURU DUTEN PROIEKTUAK LAGUNTZEKO

- **Hizkuntzaren erabilera aisialdian, familia bidezko transmisioa edota irakurtzeko zaletasuna bultzatuko da lagunduko diren proiektuen bitartez**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak bere gaurko saioan onartu du aurtengo 'Euskalgintza' delako deialdia, zeinen bitartez 979.200 euro banatuko diren era ezberdinetako euskararen aldeko proposamenen artean. Deialdi honen helburua da gizarte bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak ematea. Hori lortzeko, euskalgintzaren alorrean lan egiten duten elkarte, jarduera edota proiektuak diruz laguntzen dira.

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzatik bideratzen den diru-laguntza deialdi nagusietako bat da hau; izan ere, euskara sustatzeko hainbat proiektu posible egiten dira honi esker. Urtero 100 proiektu baino gehiago diruz laguntzen dira deialdi honen bidez; iaz 153 lagundu ziren. Lerro honek zazpi multzo ezberdinetan koka daitezkeen proiektuak laguntzen ditu:

A multzoa: Aurtengo berritasun nagusia da A multzoa bi zatitan banatuko dela. Lehenengoaren bidez diruz lagunduko dira euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak esparru ez formaletan (bereziki aisialdian). Bigarrenik, honakoak diruz lagunduko dira: euskaldunen artean euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko asmoz, gizarte aktibazioaren bidez, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabileraren aldeko jarrerak sustatzeko egitasmoak.

B multzoa: Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduerak eta egitasmoak.

C multzoa: Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.

D multzoa: Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak (gehienez ere hiru egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

E multzoa: Euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak (gehienez ere, zazpi egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

F multzoa: Euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzeko egitasmoak (gehienez ere, bi egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

G multzoa: Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak eta literatura gidak (gehienez ere, zazpi egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

Lana eta Justizia

**EUSKO JAURLARITZAK 460.000 EURO INGURU XEDATUKO DITU
EUSKADIKO 236 BAKE EPAITEGIEN FUNTZIONAMENDU GASTUAK
DIRUZ**

- Diru-laguntzak udalerrien bidez banatuko dira, biztanle-kopurua aintzat hartuta zehaztuta
- Basauriko eta Langraiz Okako udalek, EAEko bi espetxe dauden udalerriek eta Zumarragako udalak, adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, 1.850 euroko diru-laguntza osagarria jasoko dute
- Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegiak

Gobernu-kontseiluak gaur onartu du 458.325 euroko agindu ekonomikoa, Euskadiko Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak ordaintzea ahalbidetuko duena. Diru-laguntzak udalerrien bidez egituratuko dira, biztanle-kopuruaren arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 236 Bake Epaitegi daude:

BIZTANLEAK	ZENBATEKOAK
Biztanle 1 eta 499 bitartean	750 euro
500 eta 999 bitartean	875 euro
1.000 eta 2.999 bitartean	1.850 euro
3.000 eta 6.999 bitartean	2.650 euro
7.000 eta 19.999 bitartean	3.650 euro
20.000 eta 29.999 bitartean	4.625 euro
30.000 eta 39.999 bitartean	5.725 euro
40.000 biztanletik gora	7.425 euro



LURRALDE HISTORIKOA	Udale txekopurua	1-499 bizt. 750 €	500-999 bizt. 875 €	1.000-2.999 bizt./ 1.850 €	3.000-6.999 bizt./ 2.650 €	7.000-19.999 bizt./ 3.625 €	20.000-29.999 bizt./ 4.625 €	30.000-39.999 bizt./ 5.725 €	40.000 bizt. baino gehiago/ 7.425 €	Zenbatekoa
ARABA	49	18	12	15	3	1	-	-	-	63.325 €
BIZKAIA	105	21	17	28	15	17	3	1	3	225.675 €
GIPUZKOA	82	23	9	18	14	14	3	1	-	165.875 €
OROTARA	236	62	38	61	32	32	6	2	3	
ZENBATEKOK		46.500	33.250	112.850	84.800	116.000	27.750	11.450	22.275	454.875

Gainera, Euskadiko bi espetxe dauden udalerriek, Basaurik eta Langraiz Okak, eta adingabeen zentro itxia dagoen udalerrriak, Zumarragak, 1.850 euro gehiago jasoko dituzte. Hala bada, honako hauek dira guztizkoak:

- Araba/Álava: 65.175 euros
- Bizkaia: 227.525 euros
- Gipuzkoa: 167.725 euros

Diru-laguntza honi atxikitako udalerriek Bake Epaitegiaren zerbitzuak eskaintzeko erabilitako bitartekoen eta instalazioen memoria esplikatiboa aurkeztu beharko dute datorren urteko lehen hiru hilabeteetan, gauzatutako gastu errealen zenbatekoak ere adierazita.

BAKE EPAITEGIAK

Eusko Jaurlaritzak 1990az geroztik finantzatzen ditu Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak; izan ere, bere eskumenen artean daude Justizia-administrazioaren plangintza orokorra gauzatzea, Bake Epaitegien laguntza-programak kudeatzea eta Bake Justiziaren arloko jarduerak sustatzea.

Bake Epaitegiak dira egitura judizialaren lehen kate-begia, eta herritarrengandik hurbil daudenez, herritarren eta justiziaren arteko harremana auzotasun-harremanaren pareko izatera hel daiteke

Presidencia

AYUDAS PARA ATENDER SITUACIONES DE EXTREMA NECESIDAD DE PERSONAS PERTENECIENTES A LAS COLECTIVIDADES VASCAS

El Gobierno Vasco ha dado el visto bueno a la convocatoria de ayudas por un total de 202.000 euros, destinadas a los Centros Vascos para atender necesidades asistenciales y situaciones de extrema necesidad de personas que pertenecen a las Colectividades Vascas.

Las ayudas hoy aprobadas permitirán asistir a las personas que, ya sea por la coyuntura de oscilaciones monetarias y deficiencias económicas en algunos países; edad; situaciones carenciales; crisis de salud; o bien por incapacitaciones accidentales sobrevenidas, se encuentran en grave situación de exclusión social.

Además, los solicitantes deben cumplir los siguientes requisitos:

- a) Acreditar la pertenencia a la colectividad vasca,
- b) Residir en el extranjero,
- c) Carecer de bienes e ingresos que permitan hacer frente a necesidades asistenciales o a situaciones de extrema necesidad, y
- d) Residir en domicilios particulares y no pertenecer a organizaciones, comunidades o instituciones que por sus reglas o estatutos estén obligados a prestarles asistencia.

A la hora de conceder las ayudas se valora la situación económica familiar en relación con la renta media del país, la gravedad de la contingencia sanitaria o de la situación de extrema necesidad, y la adecuación de la petición a las necesidades.

Las ayudas pueden alcanzar hasta el cien por ciento de lo solicitado, con el límite del importe de la Renta Básica vigente en la Comunidad Autónoma Vasca, salvo las ayudas destinadas a hacer frente a contingencias sanitarias, que no tendrán este límite.

Venezuela principal receptor

Desde su puesta en marcha en 2003, el Gobierno Vasco ha seguido convocando anualmente este programa de ayudas

En la convocatoria de 2017 se han adjudicado 194.642 euros, atendiendo a 111 unidades familiares de 16 Euskal Etxeak diferentes de 6 países. Venezuela

ha sido el país al que más recursos se han destinado (37%), seguido de Argentina (22%), Cuba (19%), Chile (18%), Uruguay (3%) y Reino Unido (1%).

En esta convocatoria el perfil del receptor ha sido mayoritariamente femenino, ya que de esas 111 unidades familiares, 76 tienen a una mujer como cabeza de familia. Abundan también los casos médicos, con un total de 45.

Presidencia

CONVOCADAS LAS AYUDAS A PROYECTOS EN MATERIA DE CONVIVENCIA Y DDHH, POR UN TOTAL DE 1,1 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde en su reunión de hoy a la convocatoria de las ayudas destinadas a proyectos en materia de convivencia y derechos humanos, a las que se van a destinar un total de 1.150.000 euros. El objetivo de estas ayudas es promover en nuestra sociedad una cultura de convivencia, de respeto de los derechos humanos, de empatía y solidaridad y acercar las víctimas a la sociedad, a través de la creación de espacios compartidos.

